

PEQUEÑA VELOCIDAD

Irungo kontzentrazio esparrua (1937-1942)



2023ko irailean egindako txosten:

“Nicolás Guerendiain” Irungo Errepublikarrak

Palmera-Montero gunea, 4. lokala

Tel.: 669075423

Web: www.asociacionrepublicanairunesa.org

E-maila: 140431@asociacionrepublicanairunesa

AURKIBIDEA

<i>PEQUEÑA VELOCIDAD</i>	1
Irungo kontzentrazio esparrua (1937-1942)	1
“Nicolás Guerendiain” Irungo Errepublikarrak.....	2
KONTZENTRAZIO ESPARRUAK ESPAINIAKO ESTATUAN.....	5
Zenbat kontzentrazio esparru izan ziren Espainian Francoren garaian?	7
Zenbat pertsona sartu zituzten kontzentrazio esparruetan?.....	7
Zer-nolako lekuak erabili zituzten kontzentrazio esparruak kokatzeko?.....	7
Zer eginkizun betetzen zuten horrelako esparruek?.....	7
Abalak, bizi aseguru eta askatasunerako pasaporte	8
Deuseztatze esparruak, giltzapetze esparruak, zigor esparruak, bortxazko lanak egiteko esparruak eta berreziketa esparruak.....	8
Emakumeak esparruetan.....	10
GIPUZKOAKO KONTZENTRAZIO ESPARRUAK	11
IRUNGO KONTZENTRAZIO ESPARRUA.....	15
Zenbait eraikin okupatu zituen.....	17
Esparruak Irunen.....	19
Stadium Gal	19
Hilaturas ferroviarias	19
Behobia.....	20
Irungo presondegia	20
<i>PEQUEÑA VELOCIDAD PABILOIA</i>	23
<i>Zutik jarraitzen duen kontzentrazio-esparru bakarra</i>	25
Non dago <i>Pequeña Velocidad</i> ?	25
Historia.....	26
Deskripzioa.....	27
Kontzentrazio-esparru horretatik pasatu ziren lekuko testigantzak.....	29

MEMORIA LEKUAK	37
Definizioa	39
Memoria lekuak babestea funtsezkoa da hainbat arrazoi garrantzitsurengatik:	40
Memoria lekuak eta heziketa	41
Memoria lekuak munduan	42
Memoria zentroak Argentinan	45
Memoria zentroak Txilen	47
Beste memoria-zentro batzuk Latinoamerikan.....	49
<i>PEQUEÑA VELOCIDAD “MEMORIAREN LEKUA”</i>	<i>51</i>
ADIERAZPEN INSTITUZIONALA	55
IRUNGO UDALA	55
Irungo batailaren eta okupazioaren 87. Urteurrena.....	55
(2023ko irailaren 3a)	55
ONDORIOAK	59
ARGAZKIAK	63
BIBLIOGRAFIA	73

KONTZENTRAZIO ESPARRUAK ESPAINIAKO ESTATUAN

Zenbat kontzentrazio esparru izan ziren Espainian Francoren garaian?

Carlos Hernándezen hitzak erabiliz erantzun beharko litzaioke galdera horri: "*Tropa errebeldeek lurraldea konkistatu ahala, nazio osoa kontzentrazio esparru erraldoia bilakatzen joan zen*".

Lehenengo esparrua 1936ko uztailaren 19an zabaldu zuten, Marokoko protektoratua zenean, eta, gero, beste batzuk zabaldu zituzten; guztira, 300 inguru.

Zenbat pertsona sartu zituzten kontzentrazio esparruetan?

700.000 lagunetik milioi bat lagunera bitartean.

Zer-nolako lekuak erabili zituzten kontzentrazio esparruak kokatzeko?

Fabrikak, biltegiak, industriak, kuartelak, gotorleku militarrek, zezen plazak, futbol zelaiak, ikastegiak... Gehienak leku irekiak ziren, non barrakoiak eraiki zituzten, edo presoak egurats gorrian utzi.

1937ko uztailaren 5ean, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Francok sinatutako agindu bat kaleratu zen. Haren bidez, Presoen Kontzentrazio Esparruen Ikuskaritza Ofiziala sortu zen, esparruen sarea zentralizatzeko, kaotikoa eta neurrigabea baitzen, eta, haren buru, militar afrikanista bat jarri zen, Luis Martín Pinillos koronela.

Zer eginkizun betetzen zuten horrelako esparruek?

Funtsezko eginkizuna presoak hiru multzotan sailkatzea zen:

- Etsai **errekuperaezinak**, fusilatuak edo espetxe zigor luzeetara kondenatuak izan behar zutenak
- Erregimen berriaren kontrakoak zirenak baina menderakuntzaren, umiliazioaren, beldurraren eta bortxazko lanen bidez **"berreziak"** izateko modukotzat hartzen zituztenak.
- Mugimenduaren **"aldekotzat"** hartzen zituztenak, zeinak jaioterriko agintari zibil eta militarren ardurapean betiere armada frankistaren lerroetan sartu edo aske uzten zituzten.

"*Alderantzizko justizia*" zen: indarreko legedi konstituzionala errespetatu zutenak "*errebeldetzat*" hartu zituzten, eta bete ez zutenak, "*zuzentzat*".

Abalak, bizi aseguru eta askatasunerako pasaporte

Abala bizi aseguru zen presoentzat, askatasunerako pasaportea, eta senideek ahaleginak eta bi egiten zituzten berau lortzeko. Erlijioso edo falangista batek edo erregimenari leiala zitzaiola jotzen zen edozein pertsonak sina zezakeen.


Deuseztatze esparruak, giltzapetze esparruak, zigor esparruak, bortxazko lanak egiteko esparruak eta berreziketa esparruak

Deuseztatze esparruetan, presoek hilketak egunerokoaren parte ziren: bai falangista taldeek herrikide errepublikanoak ehizatu eta erailtzeko ematen zituzten "*paseoak*", bai gerra kontseilu sumarisimoen ondoriozko "*legezko*" erailketak.


Presoak baldintza negargarrietan bizi ziren: apenas ematen zieten janaririk; esparruek ez zituzten betetzen gutxieneko baldintza higieniko ez sanitarioak; presoak pilotuta zituzten; hotzak zeuden; tratu txar fisikoak eta jipoiak ematen zizkieten; torturatu egiten zituzten. Presoak gose ziren; akituta, parasitoz beteta eta, batzuetan, gaixo zeuden; eta, gainera, bortxazko lanak egin behar izan zituzten.

Berrezi egiten zituzten, menderakuntzaren, umiliazioaren eta propagandaren bidez eta burua janda: formatzera behartzen zituzten, *Cara al sol* eta beste himno frankista batzuk kantatzera, bandera gorri-horiaren aurrean erromatar erako agur faxista egitera; doktrinamendu hitzaldiak ematen zizkieten; etab. Bada, Eliza funtsezkoa izan zen berreziketa lanetan.

[Esteka honetan](#) kontzentrazio-eremuen mapa interaktibo hau ikus dezakezu.



Kontzentrazio-esparru batzuk Espainiako Estatuan. Mapa osoa ikus daiteke honetan: [Los campos de concentración de Franco](#) - (Carlos Hernández de Miguel)



Miranda de Ebro (Burgos). Iraupen luzeko esparrua. Zezen-plazan eta Leopoldo azukrelantegian kokatu zen behin-behinean, baina gero, Bayas ibaiaren ondoko lurretan eraiki zuten, La Hoyada parajeetan. Lehen etapan, preso errepublikanoentzako esparrua izan zen, eta garai horretan, hirukoiztu egin zuten bere edukiera maximoa.



Orduña (Bizkaia). Esparru egonkorra. Aita Jesuiten ikastetxean kokatua. Gainditu egin zuten 4.000 preso gehieneko edukiera. 1937ko uztailetik presondegi bihurtuta, kontzentrazio-esparru ofiziala izan zen 1938ko abuztutik 1939ko iraila bitartean.



Santander (Kantabria). Esparru egonkor eta aldizkakoa. Hiru barrutiak Italiako tropek prestatu zituzten 1937ko abuztuaren 26an, eta 20.000 preso inguru ere izan ziren bertan. Zezen-plaza 1937ko urrira arte egon zen irekita, eta berriro erabili zuten 1939ko otsailetik gutxienez 1939ko maiatzera bitartean.



Prisioneros en el Cuartel de la Bomba de Badajoz (Fuente: 1936 La Serena-Los Monegros)

Badajoz (Badajoz). Iraupen luzeko esparrua. Garai batzuetan, apenas 200 preso biltzen zituen, baina, beste batzuetan, 2.000 baino gehiago izan ziren. 1936ko abuztuan hasi zen espetxe gisa erabiltzen. Dokumentuen arabera, 1937ko uztailetik 1939ko irailera bitartean funtzionatu zuten kontzentrazio-esparru gisa.

Emakumeak esparruetan

Carlos Hernándezek loscamposdeconcentraciondefranco.es web orrian kontatzen duenez, "Emakume errepublikanoek gizonek baino gorroto eta herra gehiago piztu zuten matxinatuen artean. Sentimendu hori argi eta garbi islatu zen José Vicente Puente Arriba egunkarian idatzitako *El rencor de las mujeres feas* artikuluan: "Itsusiak ziren. Txikiak, hankaokerrak, altxor handia den barne-bizitza hori gabekoak, erlijioaren babesik gabekoak, feminitatea bat-batean itzali eta bekaizkeriaz hori bihurtu zirenak. Uztailaren 18an, mendeku gosea piztu zen haien artean, hiltzaile basatiaren tipula eta sutegi usainaren ondoan, eta ederrak zirenak suntsituz baretu nahi izan zuten beren sumina. Eta salatu egin zituzten inoiz begiratu ez zieten gizonak. Ehunka gorpuren gainean, gaztetasun mardulean apurtutako galburuen gainean, emakume itsusien gorrotoak hordaren hilketa bihozgabeak defendatutako bandera iltzatu zuen. Eta sentitzen zuten gorrotoa arindu ezinaren zigorra ezarri zien Jainkoak'.

(...)Buruzagi frankisten pentsaera matxista eta sasipaternalistan, ezin emakumeak sartu kontzentrazio esparruetan. Horregatik ez zen bat bakarra ere egon emakumezkoentzako. Badira salbuespenak, hala nola Los Almendrosekoa Alacanten, lehen egunetan emakume presoak egon baitziren. Era berean, jasota dago emakume presoen talde txiki batzuk izan zirela Cabran (Kordoba), Santa Klara komentuan (Soria), Camposancos en La Guardian (Pontevedra), El Sardinero Sport zelaietan (Santander) eta San Markosen (Leon). Gerra amaitzean, Castropoleko (Asturias) Arnaoko kontzentrazio esparruan bizi baldintza latzetan egon ziren emakumeak. Emakume horien delitu bakarra izan zen gerrilla antifrankistarekin bat egiteko mendira ihes egin izana salatzen zieten gizonen amak, arrebak, alabak edo emazteak izatea." (...)



Soriako Santa Clara komentuko egungo irudia.
Verbigraciako argazkia

Soria. Campo de larga duración. Iraupen luzeko esparrua. Santa Clarako komentu/kuartelean kokatua. Ofizialki 500 preso hartzeko edukiera zuen, baina 3.500 preso izatera iritsi zen. Gutxienez, 1936ko urritik 1939ko abenduaren 5era bitarte egon zen martxan, eta handik aurrera kartzela izan zen. Eraikina, gaur egun, erabilera zibilerako zein militarerako da.



Arnaoko kontzentrazio esparruko barrakoietako bat Castropolen (Asturias), alanbre hesitik ikusita (Ramón García Piñeiroren eskaintza)

Figueras-Arno. Iraupen luzeko esparrua. Arnaoko hondartzan eraikia. Hasiera batean, Ortiguera eta Caneroko esparruarekin batera, kontzentrazio esparruen gune batean zegoen, eta bando errepublikanotik ihesi zihozten gradudunak joaten ziren hara, eta han egiten zizkieten galdeketak. Arnaok bi etapa izan zituen: bata gerrako presoentzat eta bestea gerrilla antifrankistaren senide eta ustezko kolaboratzaileentzat.

GIPUZKOAKO KONTZENTRAZIO ESPARRUAK

Mugan zeudela-eta, Irunera eta Hondarribira milaka errefuxiatu iritsi ziren, eta Irunen kokatu zen Gipuzkoako kontzentrazio esparru ezagun bakarra, Kontzentrazio Esparruen Ikuskaritza Orokorraren agindupean [*Badiola Ariztimuño, Ascensión: La represión franquista en el País Vasco. Cárceles, campos de concentración y batallones de trabajadores en el comienzo de la posguerra* doktorego tesia, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko Geografia eta Historia Fakultatea, 2015].

1939an, kontzentrazio esparruak ixten hasi ziren, eta urte hartaz harago iraun zuen bakarra Irungoa izan zen, 1942ra arte egon baitzen zutik.

1939an, kontzentrazio esparruak ixten hasi ziren, eta urte hartaz harago iraun zuen bakarra Irungoa izan zen, 1942ra arte egon baitzen zutik.

Carlos Hernándezen kontzentrazio esparruen zerrendak Irun eta Hondarribiko iraunaldi luzeko esparrua dakar. Frantziatik itzultzen ziren milaka espainiarrak giltzapetu eta sailkatzeko erabiltzen zen.

Irungo kontzentrazio esparrua martxan zegoen 1937ko uztaileko, eta 1942ko abenduan itxi zuten.


Eremu honetaz gain, Gipuzkoan Tolosako eta Donostiako kontzentrazio-esparruak aurki daitezke. (*Iturria: Campos de concentración de Franco - Carlos Hernández*)

Tolosako kontzentrazio esparrua: Zezen plazan kokatua. 1939ko otsailetik urte horretako apirilera arte jardun zuen, gutxienez.



Tolosako zezen-plazaren egungo irudia

Donostiako kontzentrazio-esparrua: Eremu egonkorra. Chofre zezen-plazan dago. 6.000 preso baino gehiago bildu zituen, nahiz eta gaitasun ofiziala 1.500 izan. 1939ko otsailetik 1939ko maiatzera arte jardun zuen, gutxienez. Eraikina 1974an eraitsi zuten.



Txofreko zezen plaza zena, Donostian

IRUNGO KONTZENTRAZIO ESPARRUA

Zenbait eraikin okupatu zituen

Irundarrei 1936ko irailean gertatu zenari eta senideek orduan egin zutenari buruz galdetuko bagenie, gehienek erantzungo lukete gerratik ihesi joan zirela, emakume eta haurrak Frantziara abiatu zirela batez ere, eta gizonak, Kataluniara, artean errepublikanoen esku baitzegoen.

Askok banaketaz, beldurraz, ziurgabetasunaz hitz egingo lukete, eta, gero, itzuleraz, bueltan aurkitu zutenaz, etxe okupatu eta erredez; familiak berriz elkartzeaz eta diktadura batean bizitzeaz, ez barkatzeaz eta Errepublikako legediari leial izan zitzaizkionak (alegia, "*aberriaren etsaiak*") zigortzeaz.

Bada, lehen pausoa kontzentrazio esparruak ziren.

Irungo kontzentrazio-esparrua iraupen luzeko kontzentrazio-konplexu baten parte izan zela adierazten duten testigantzak daude, bai Carlos Hernández de Miguelen kontzentrazio esparru frankisten zerrendak [*Los campos de concentración de Franco*], bai Ascensión Badiola Ariztimuñoren doktorego tesiak [*La represión franquista en el País Vasco. Cárceles, campos de concentración y batallones de trabajadores en el comienzo de la posguerra*, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko Geografia eta Historia Fakultatea, 2015].

Ascension Badiola Ariztimuñok Gipuzkoako kontzentrazio-esparruei buruz hitz egiten duenean, aipatzen du, mugako izaera dutenez, erbestetik milaka errefuxiatu iritsi zirela Irunera, eta Irunen ezarri zela Gipuzkoan ezagutzen den KSIren agindupeko kontzentrazio-esparru bakarra.

Aiala Oronoz Mitxelenak idazten du: *““Kontzentrazio-esparruaz” singularrean hitz egiteak ez ditu berez islatzen ehunka mila erbesteraturen muga igarotzeko baldintzak. Irunen, kontzentrazio-esparruaz gain, beste hainbat atxikitze-zentro egon ziren, baina ia ez da haiei buruzko dokumentaziorik gorde. Beraz, zaila da Irunen izandako atxikitze-zentroen eta kontzentrazio-esparruaren arteko erlazio kronologikoa zehaztea. Kontzentrazio-esparrua “Stadium Gal” inguruan egon zen, Nazioarteko Zubiaren inguruan. Identifikatutako atxikitze-zentroak honakoak dira: RENFE geltokiaren inguruan zegoen “Trenbide Iruteak” lantegi zaharra, “Lore Bat” instalazioak Elizatxo hiribidean eta biltegi zahar batzuk “Carioca” areto zaharra dagoen lekuan, Behobiako Nazioarteko Zubiaren inguruan.*

*1937ko uztailaren 5ean presoan kontzentrazio-esparruak sortzeko Batzorde bat eratzeke agindua argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean. Kontzentrazio-esparruen helburua, behintzat itxurazkoa, hitzak berak adierazten duen bezala, sailkatu behar ziren pertsonak kontzentratzea zen. **Gatibuen eta presoan** arteko desberdintasunak erabateko garrantzia du kontzentrazio-esparruetan bildu beharreko pertsonen tipologia zehazteko orduan. Presoak epailearen edo gobernuaren aginduz kartzelaratuak pertsonak ziren. Preso prebentiboak izan zitezkeen, eginbide judizialak bideratzen zitzaizkien bitartean edo preso zigortuak, auzitegi militar batek epaituak. Gatibuak agintarien “iragazkitik” pasa behar zuten pertsona guztiak ziren, etxera itzuli edo beste norabait bidali aurretik. Kontzentrazio-esparruen kokapenaren arabera, presoan tipologiak esanahi desberdina zuen. Gerra amaituta preso hartutako milizianoak izan zitezkeen, auren jatorrizko lekuetara eramane eta auzitegi militar batek*

auzipetzeko zain, edo Espainiako edo atzerriko beste leku batzuetatik eramandako zibilak izan zitezkeen, etxera itzuli ahal izateko abalak lortzeko zain zeudenak.

Irunen, Stadium Galeko kontzentrazio-esparrua, terminologikoki hitz eginez, kontzentrazio-esparrua baino gehiago izan zen sailkapen-esparrua. Presoak bertan egun gutxi egoten ziren. Errefuxiatuak ziren -milizianoak eta zibilak- alboko herrialdetik itzuli eta atxikita zeudenak, askatzeko, beste kontzentrazio-esparru edo langileen batailo batzuetara eramateko edo, kasurik okerreanean, atxilotzeko eta kartzelara eramateko, auzi judizial bat bideratzeko zain zeudenak. Presoak sailkatu eta kudeatzeaz gain, kontzentrazio-esparruek prozesu luze bat abiaraztea izan zuten helburu, faxisten aurrerapenari aurre egin ziotenak menderatzeko eta berrezteko. (Irungo prisioneroen kontzentrazio-esparrua – Aiala Oronoz Mitxelena - <http://www.asociacionrepublicanairunesa.org/eu/campo-concentracion-prisioneros-irun.php>)



Esparruak Irunen

Stadium Gal

Irungo Real Uniónen futbol-zelaia haietako bat izan zen. Josep Torrens presoaren testigantza dugu: *“Muga gurutzatu genuen, eta Irunen futbol-zelaian sartu gintuzten, eta esan ziguten “norbaitek baliozko edozein objektu badu eta berea dela ziurtatu ezin badu, entrega dezala”. Bestela, ondorioei erantzun beharko die. Beraz, han utzi genituen erlojuak, eraztunak eta genuen guztia” (Asunción Badiola)*



Deskribapena: Stadium Gal 1926ko irailaren 19an inauguratu eta gutxira

Iturria: AMI - Erreferentzia zk.: 38616 - Argazkiaren urtea: 1926 – 1926

Hilaturas ferroviarias

Irungo atxilotze-zentro handienetako bat izan zen. Emakumeak, haurrak eta adineko pertsonak eramaten zituzten hara. Karmen Muruaren testigantza dugu:

“Irunera itzuli ginenean, hiru aldiz baztertu gintuzten mugan, abizenak ikusten zituztetenean. Azkenean, abenduaren 7an utzi ziguten pasatzen, Anakako Hilaturasera eraman gintuzten. Bestaldetik zetozen guztiak sartzen zituzten han. Orain, telebistan errefuxiatu-esparru horiek ikusten ditudanean, Hilaturasen ikusten dut neure burua. Koltxoiak lurrean, umeak korrika, emakumeak... familiaren lagun mina zen Leandro Recondo etorri zen, amak deituta, eta Errenteriara eraman gintuen autoan”

Iturria: Karmen Murua. *“Nicolás Guerendiain” Irungo Errepublikanoen Elkarteko testigantzak* [ikusi elkarrizketa osoa](#)



“Esparru hori dagoeneko 1937ko erdialdean dokumentatuta agertzen da”

Behobia

Behobiako bizilaguna den Juncal Violet lekukoak dioenez, bi atxilotze-puntu zeuden auzoan: **Arocena ardoen pabiloia eta "Carioca" dantzalekua.**

Iturria: Juncal Violet. “Nicolás Guerendiain” Irungo Errepublikanoen Elkarteko testigantzak [ikusi elkarrizketa osoa](#)

Irungo presondegia

Elizatzoko kuartel militarreko pabiloiak. XIX. mendearen amaieran eraiki zuten kuartela, gaur egun Pio Baroja eta Bidasoa institutuek okupatzen duten orubean. Gerra Zibilean eta ondorengo urteetan (1920ko edo 1930eko hamarkadak) espetxe gisa erabili zuten.



Irungo presondegia. Iturria. Irungo Udal Artxiboa - Argazkiaren urtea: 1920-1930

Juan Gallano, II. Errepublikako Diputazioko presidentea, Irungo kartzelatik pasatzeari buruz aritu da artikulu honetan.

Juan Gallano (1882-1966)

El político centrista que no pudo ser

Fue Presidente de la Diputación durante la II República pero, como muchos otros miembros de partidos de centro, fue perseguido por los dos bandos durante la Guerra Civil

Miguel Rotaeché Gallano

A finales de 1938, cuando hacía ya meses que Bilbao estaba tomado, Rosalía, la mujer de Juan Gallano, se encontraba en una enorme sala de espera de la cárcel de Ondarreta en San Sebastián, con un cesto de comida para su marido, al igual que multitud de esposas y parientes que aguardaban el momento del encuentro. Era el día de visitas. Ninguna de sus cuatro hijas, de diecisiete a once años, le acompañaba. Su marido, además de preso, estaba enfermo. ¿Cómo llegó ella a esa situación?

Nacida en Vera de Bidasoa (Navarra), se casó en 1919 con Juan Gallano, un veraneante abogado bilbaíno que empezaba entonces a dedicarse a la política. Había sido incluido en una candidatura como republicano independiente para las elecciones de 1919 de Diputados Provinciales por el Distrito de Bilbao-Centro, y salió elegido. Fue diputado provincial durante una legislatura, hasta agosto de 1923.

En ese período de tiempo puso en marcha las Escuelas de Barriada, que llegaron a ser ciento diecinueve en toda Vizcaya, acabando con el analfabetismo en la provincia. Había propuesto la creación de estas escuelas con la Moción Gallano, de 26 de noviembre de 1919, en la que con un estilo eficaz argumenta y apremia para que se adjudiquen los fondos necesarios.

Fue presidente del Círculo de Bellas Artes y Ateneo a partir de 1932, y también perteneció a la Sociedad "El Sitio".

No perteneció a ningún partido hasta que, en 1932, ingresó en el Partido Republicano Radical. En octubre de 1933 fue nombrado Presidente de la Diputación de Vizcaya. Permaneció en ese cargo hasta finales de 1934, viviendo desde ese puesto la revolución de octubre de 1934. Este episodio fue aquí casi tan duro como en Asturias o Cataluña, siendo la represión terrible. Sólo en Bilbao hubo dieciséis muertos, y novecientos detenidos en toda Vizcaya. Aunque el Gobernador Civil dirigía las operaciones, parece que el Presidente de la Diputación intervenía también, pues fue condecorado por su actuación con la Cruz del Mérito Militar.

"A requerimientos del Sr. Lerroux" (Presidente del PRR) volvió a presidir la Diputación de Vizcaya en abril de 1935, dimitiendo y dándose de baja del partido en noviembre del mismo año.

Como consecuencia de su actuación durante la revolución de octubre del 1934, recibió amenazas de muerte, y los Miñones (policía de la Diputación) "organizaron un servicio de vigilancia para evitar un posible atentado".

Una vez proclamada la sublevación de 1936, al correr peligro su vida en Bilbao, realizó dos intentos frustrados de pasar a Francia. En agosto de 1936 le informaron de que la CNT proyectaba llevarle preso a un barco. Milicianos registraron su domicilio dos veces, y el siete de septiembre por la noche fueron a su casa con intención de sacarle y fusilarle. Esto era en el número 25 de la calle Elcano, en el piso 4º izquierda.

"Por último, la noche del siete de septiembre, varios milicianos trataron de sacarme de casa para darme el fatídico paseo. En tan angustiosos momentos, llamé telefónicamente a los servicios de Orden Público siendo inhumanamente desatendido, y merced a mis llamadas a mis parientes pude salvarme milagrosamente de las garras de los asesinos" (Declaración de J. Gallano el 25/11/1938).

Su mujer, Rosalía, también telefonó a la familia, y dos sobrinos, Juan y José Luis Gallano Gondra (más tarde serían dos conocidos



Juan Gallano en el monte Larran en 1919



Familiares de presos en la cárcel de Ondarreta a la espera de entrar a las visitas. Foto Kutxateka / Fondo Marín / Pascual Marín

médicos en Bilbao, dermatólogo y dentista respectivamente), gudarís del PNV en aquella época que, motorizados, afortunadamente alcanzaron a la camioneta que llevaba a Juan Gallano al monte Archanda. Le rescataron y pudo volver a casa.

Tuvo que permanecer escondido en Bilbao, hasta que el 17 de septiembre del 36 pudo salir en un barco alemán a Francia, donde llegó destrozado y enfermo. Allí le acogerían unos parientes de su mujer en un caserío de Ascain. Intentó volver a Vera de Bidasoa, que se encontraba en zona nacional desde el principio de la guerra, para lo que pidió infructuosamente autorización por dos veces en una oficina consular de San Juan de Luz.

Entretanto, en julio de 1937 sobrevino la toma de Bilbao, y el 5 de agosto de 1938 se publicó en el Boletín Oficial de Vizcaya una

lista de sesenta y seis personas contra las que se instruyó expediente de responsabilidad civil, con vistas a inculcar sus bienes. Juan Gallano estaba en esa lista.

Por fin consiguió pasar la frontera y llegar a Vera de Bidasoa donde estaban su mujer y sus hijas, en septiembre de 1938, y fue detenido el mismo mes, por una denuncia de un vecino de Vera, en la que se le acusaba de haber fundado en 1930 en Vera de Bidasoa el sindicato UGT, de ser anticlerical y de estar expedientado por la Comisión de Incautación de Bienes de Vizcaya. Lo que había ocurrido en 1930 es que había arbitrado en una huelga de una fábrica de Vera, con resultado favorable para los obreros.

Ingresó en la cárcel de Irún, que era lo que entonces el régimen llamaba una "prisión habilitada". En efecto, la cárcel ocupaba lo que fueron unos antiguos cuarteles. El

tamaño debía ser considerable, pues alojaba a seiscientos presos. Pero los medios debían ser muy precarios. No hay más que ver la hoja de registro de entrada de Juan Gallano, una simple cartilla escrita a mano. Estaba allí en teoría "a disposición del juez", el Juez Militar Especial de Frontera Luis Portabella Conté-Lacoste, que no le tomó declaración en los cincuenta y dos días que estuvo allí. Tampoco le permitieron visitas. El edificio ya no existe hoy en día.

Mientras estaba en la cárcel de Irún, su esposa dirigió una instancia a la Auditoría de la Sexta Región Militar, solicitando la "prisión atenuada", es decir, lo que hoy en día llamaríamos arresto domiciliario.

El 17 de noviembre pasó a la cárcel de Ondarreta, de San Sebastián. Ya al día siguiente le tomó declaración el juez Pedro Gual Cano, y entró en régimen de visi-

tas como el resto de los presos. Desde el principio consiguió que se adjuntaran al sumario más de treinta testimonios de personas de Bilbao que testificaban por escrito de su republicanismo de carácter conservador. Uno de ellos era el de José María de Areilza, alcalde de Bilbao en aquel momento. También hubo testimonios de miembros de la familia Artiach, entre otros. Desde entonces, todos ellos quedaron para la familia como amigos de toda la vida.

Aunque esta era ya una cárcel con un régimen regular de funcionamiento comparado con el de la cárcel de Irún, se sabe, por relatos de presos de esta cárcel de Ondarreta durante la Guerra Civil, que les despertaban en medio de la noche para "sacar" a varios de ellos para fusilarlos. Juan Gallano nunca contó nada parecido. Y en lo que se refiere a su paso por la cárcel de Irún, probablemente nunca se sabrá nada.

Estuvo cuarenta y seis días en esta cárcel de Ondarreta. Desde los primeros días consiguió que le viera el médico forense de la prisión que emitió un certificado médico, con el que solicitó de nuevo la "prisión atenuada". El juez remitió la solicitud a instancia superior, y el General Jefe de Estado Mayor de la Sexta Región Militar, en Burgos, contestó el 29 de diciembre de 1938 con un telegrama dirigido al juez con el siguiente contenido:

"Comuníquese que he acordado conceder a Juan Gallano Bengoechea los beneficios atenuación prisión que tiene solicitados lo que le participo para su cumplimiento interin se remiten los documentos".

El 1 de enero le condujeron a su domicilio en Bilbao, en la calle Elcano. El juez, previamente, le había hecho firmar lo siguiente:

"... que el Excmo. Sr. General Jefe de la Sexta Región Militar, había acordado concederle los beneficios de la Prisión atenuada en su domicilio, donde debe quedar detenido a disposición de este Juzgado, concediéndole autorización para acudir a los actos religiosos los días de precepto y que pueda asistir a su oficina sita en calle Hurtado de Amézaga 17, Sociedad Murrieta y C", firmando esta diligencia el interesado, en prueba de quedar enterado, conmigo el secretario que doy fe".

Como se ve, al ser una dictadura católica, se le permitía salir a casa y al trabajo. Estuvo en este régimen de arresto domiciliario hasta que, finalmente, en marzo de 1940, terminada la Guerra Civil, se le comunicó que quedaba "en situación de libertad definitiva".

La cárcel de Ondarreta se derribó en 1949. Juan Gallano murió en 1966, y fue enterrado con su Medalla al Mérito Militar.

Elgorriaga txokolate-fabrika

Luis Ortiz Alfauren testigantza “El siglo de Luis Ortiz Alfau”. Ander Izagirre: “Gogora Memoriak bilduma. Eusko Jaurlaritza 2016”

“Izan ere, Luis xaloegia zen, eta etxera itzultzerakoan, gerrako paperez betetako maleta batekin zeharkatu zuen muga: Errepublikaren armadan sarjentu izendatzea, gerra-egunkariak idatzi zituen koadernoak, zubiak eta errepideak dinamitzeko marraztu zituen zirriborroak... Paper horiek nahikoak ziren Luis heriotzara kondenatzeko.

(...)

“Hendaiako nazioarteko zubia zeharkatu zuenean, guardia zibil batek dokumentazioa eskatu zion Luisi, berrikusi, maleta konfiskatu eta Irungo Elgorriaga txokolate-fabrikara bidali zuen atxilotuta.

- Behin-behineko kartzela gisa erabiltzen zuten fabrika. Muga berriro gurutzatzen genuen gizon gutxi gorabehera gazte guztiok, atxilotu eta han sartzen gintuzten, gurekin zer egin erabakitzen zuten bitartean. Han, bai, izutu egin nintzen: pentsatu nuen nire paperak irakurriko zituztela eta fusilatu egingo nindutela.

la laurogei urte geroago, Luisek usain berezi batekin lotzen du heriotzaren zelata.

- Zer-nolako txokolate usaina! Ez genekien zer egingo zuten gurekin, hurrengo egunean hilko gintuzten, edo zer, eta han geunden, usain zoragarri hura usaintzen. Txokolate-usain oso lodia zen, ezin genuen pentsatu txokolatea jateko gogoan beste ezertan.

Garai hartan, Elgorriaga lantegiak normaltasunez funtzionatzen zuen, xehetasun batekin: biltegian kakao-zakuak eta preso errepublikanoak gordetzen zituzten.

Luis egun batzuk egon zen bere helmuga jakin zain. Azkenean deitu ziotenean, dardarka hasi zen.

-Esan zidaten Deustura eramango nindutela preso. "ba, ez dakizu zer poza. Niri bizia salbatu zidan larruzko maleta hark; ziur nago. Mugako guardia zibilak ikusi zuen oso maleta ona zela, barruan arropa ona zeramala, eta seguru nire paper guztiak bota zituela, parterik ez emateko eta gauzak beretzat hartzeko. Maleta lapurtu zidan guardia harengatik nago bizirik.”

PEQUEÑA VELOCIDAD PABILOIA

Zutik jarraitzen duen kontzentrazio-esparru bakarra

Non dago *Pequeña Velocidad*?

Pequeña Velocidad izeneko pabiloia Irunen dago, hiriko trenbide-nukleoaren barruan. Eremuaren hego-ekialdean dago, aduanaren eraikin historikoari atxikita, trenbideko gainerako nabeekin batera. Zona hori ADIFek Irungo Udalarari lagatako 33.888 m²-ren zatian dago, Vía Irun izeneko hirigintza-garapenaren barruan. Baina hiri-pasabide batek kontzentrazio-esparru zaharra eraista ekar lezake.



Historia

Eraikinari izen hori jarri zioten, garai hartan trenbide-sisteman bi abiadura zeudelako: “*gran velocidad*” eta “*pequeña velocidad*”. Abiadura txikiaren sistema merkantziarako erabiltzen zen. Herriz herri gelditzen zen, eta merkeagoa zen.

Abiadura txikiko trena “*Pequeña Velocidad*” nabearen barrura sartzen zen, eta han utzitako salgaiak Aduana eraikinean kontrolatzen ziren.

Espainiako Estatuan, Palentzian dago Irungoaren antzeko arkitektura duen beste eraikin bat, “*Pequeña Velocidad*” izenekoa.



Palentziako Pequeña Velocidad eraikina. Iturria: Gaztelako Iparraldea.

Deskripzioa

Pequeña Velocidad 1882. urtean eraiki zen Aduanako eraikin nagusiaren atzeko aldean eraiki ziren pabiloietako bat da.



Aduanako eraikina - Iturria: Irungo Udal Artxiboa



Iturria: Irungo Udal Artxiboa

Deskripzioa: Iparreko Trenaren trenbide-hondartza. Bigarren planoan, eskuinean, tren-geltokia eta, ezkerrean, instalazioak eta Aduanaren eraikina. J. A. Murgiaren argazkia




Pequeña Velocidad pabiloia - Iturria: Espainiako Liburutegi Nazionala, Gerra Zibileko funtsa



Pequeña Velocidad pabiloia – Egungo ikuspegia

Kontzentrazio-esparru horretatik pasatu ziren lekuko testigantzak

Eremu horri dagozkion lekukotasunen artean **“Kamiñazpi”**rena (**Jose Maria Etxaburu**) dugu, etxera itzuli nahi zueneko.



(...) “Gure itxaropena Ramon Sierra zan. Nire arreba Mertzedes, aren etxeko neskamea zan aspalditik. Jaun au izan zan, Franco’ren aldekoak Donostia’n sartu ziranean, lenengo gobernadore zibilla.

(...) Bere ustez, ona biurtzean, lau-bat illabete egingo genduzan atxilotuta.

Olan bada, etxera etortzeko gaztigua artu genduan, orretarako paperak egiten asi giñan (...)

Ta izentau genduan mugea igaro bear genduan eguna. Ez naz gomutaten zein egun zan, baiña Urria zala uste dot.

(...) Emendiko aldera igaro giñanean, ez geukan iñor etxekorik zain. Baiña aduanan gure paperak erakusten asi ta bi edo iru minutura, Mertzedes neure arreba ta Sierra Jauna eldu ziran beribillez (...)

Asi zan Sierra jauna zerbait egin naian; baiña itxurea zanez, ez eukan aldi bateko alik, influentziarik. Etxekoakaz geltokiko jatetxean apaltzeko baimena lortu euskun. Ta Irun’go Norte’ko geltokiko jatetxean apaldu genduan. Ori be zerbait zan.

Apaldu ostean geltoki bertako Pequeña Velocidad’eko almazenera eroan ginduezan iru lengusuok. Frantzia’tik igaroten ziran gizonezko guztiak toki aretara eroaten zituen (...)

Jende asko egoan almazenean. Jakiña, ez egoan nun etzin; eta batzutan zutiñik ta bestetan bultoren baten gaiñean jarrita, igaro genduen ze-edo-zelan gaba. Naikoa luzea izan zan.

(...), lantzean –lantzean an agertzen ziren, norbaiteri edo batzuei deituaz.

(...) lantzean-lantzean han gertzen ziran, norbaiteri edo batzuei deituaz. (...) Geuri be deitu euskuen eta urten genduen.

Italiar gudari ofizial bat zan, gugaz egon nahi ebana, Prantzia’ko barriak jakin nai zitan.

(...) Eguerdi ostean, bigarren deia euki genduan. Ordukoa andik kanpora urtetekoa zan. Amar-amabi lagun txapel oker biren ardurapean. Norte’ko bultzian sartu ginduezan, Cardeña’ra eroateko. (...)

Euskera batuan

(...) Gure itxaropena Ramon Sierra zen. Nire arreba Mertzedes haren etxeko neskamea zen aspalditik. Jaun hau izan zen Francoren aldekoak Donostian sartu zirenean lehenengo gobernadore zibila.

(...) Bere ustez, hona bihurtzean lau bat hilabete egingo genuen atxilotuta.

Hala, bada, etxera etortzeko gaztigua hartu genuenean, horretarako paperak egiten hasi ginen. (...) Eta izendatu genuen muga igaro behar genuen eguna, ez naiz oroitzen zein eguna zen, baina urria zela ustet dut.

(...) Alde honetara igaro ginenean, ez genuen etxeko inor gure zain. Baina aduanan gure paperak erakusten hasi, eta bi edo hiru minutura, Mertzedes nire arreba eta Sierra jauna heldu ziren kotxez.

(...) Hasi zen Sierra jauna zerbait egin nahian, vaina, itxura denez, ez zuen ahalmenik. Etxekoez geltokiko jatetxean afaltzeko baimena lortu zigun. Eta Irungo Norteko geltokiko jatetxean afaldu genuen. Hori ere zerbait zen.

Afaldu ondoren, geltoki bertako "Pequeña Velocidad"-eko biltegira eramán gintuen hiru lehengusuok. Frantziatik igarotzen ziren GIZONEZKO guztiak toki hartara eramaten zituzten.

(...) Jende asko zegoen biltegian. Jakina! Ez zegoen non etzan, eta batzuetan zutik eta veste batzuetan bultoren baten gainean jarrita igaro genuen nola-hala gaua. Nahikoa luzea izan zen.

(...) Noizean behin, han agertzen ziren norbaiti edo batzuei deituaz.

(...) Guri ere, deitu ziguten eta atera ginen.

Italiar gudari oficial bat zen gurekin egon nahi zuena, Frantziako berriak jakin nahi zituen.

Eguerdi aldera bigarren deia eduki genuen. Ordukoa, handik kanpora ateratzeko zen. Hamar-hamabi lagun txapel-okar (sic) biren ardurapean. Norteko trenean sartu gintuen Cardeñara eramateko (...)"

Kontzentrazio-esparru horretatik igaro izana kontatzen duen beste testigantzetako bat Tomas Valentinena da, Manu Valentin historialariaren aitona. Bilobak Twitter bidez zabaldu ditu aitonaaren gorabeherak.



Tomas Valentin Ramosek 20 urte zituen, muga zeharkatu zuenean, 1939ko otsailean. Errepublikanoaren erretreta jendetsuan izan zen Tomas. Gurs-eko kontzentrazio-esparrura eraman zuten, eta sei hilabete igaro zituen han.

Mexikora emigratzeko aukera baztertuta, bizitza osoan damutuko zaion erabakia, Espainiara itzultzea erabaki zuen, erregimen frankistatik egiten zituzten deiei erantzunez.

1939ko uztailaren amaieran sartu zen Espainian. Berehala atxilotu eta Irungo kontzentrazio-esparrura eraman zuten.

Esparruan, errefuxiatuak bi talde handitan banatuko dituzte. Horietako bat armada errepublikanoan parte hartu zuten gizonak osatuko dute, eta *“mugan aurkeztutakoak”* izen ofiziala izango dute; Tomás izango da horietako bat.

Esparrutik ateratzeko, erregimenaren abalak behar ditu. 1939ko abuztuaren 4an esparrutik aitari idazten dion lehen gutuna izango da hori.

¡Viva España!



¡Viva Franco!

Viues 4-8-39

Año de la Victoria

Mi querido padre: Después de infinidad de tiempo al fin puedo escribirte. Desde luego que no he sido culpa mía, pues en Francia no tenía dinero para el franquero, y en España no lo hice antes por que no me acordaba del pueblo en que estás.

Ya me hago cargo de lo que habrás sufrido, pero espero que podrás desquitarte en cuanto estemos todos juntos.

Yo tambieén he pasado lo mio, sobre todo pensando en vosotros.

Estoy provisionalmente en las oficinas del campo. Estoy muy bien, inclusive con una libertad relativa. Puedo salir del campo, pero no circular por la población.

Hace días escribí al tío Pio, y por ahora no he tenido contestación.

Hoy he recibido, carta de casa en

la cual me envian, dos avales, uno de
Manolo y otro de un amigo de él.
No sé el tiempo que estaré aquí.
Si cuando termine me enviarán a un
campo o me enviarán a casa. El jefe
del campo es un teniente de la Guar-
dia Civil.
Dile más por hoy, recibe
un fuerte abrazo de tu hijo
Luis
Campo de Concentración de
Arciel (Ofiinas)

Mi querido padre: Después de infinidad de tiempo al fin puedo escribirte. Desde luego que no ha sido culpa mía, pues en Francia no tenía dinero para el franqueo, y en España no lo hice antes porque no me acordaba del pueblo en que estás.

Ya me hago cargo de lo que habrás sufrido, pero espero que podrás desquitarte en cuanto estemos todos juntos. Yo también he pasado lo mío, sobre todo pensando en vosotros.

Estoy provisionalmente en las oficinas del campo. Estoy muy bien, inclusive con una libertad relativa. Puedo salir del campo, pero no circular por la población

Hace días escribí al tío Pío, y por ahora no he tenido contestación.

Hoy he recibido, carta de casa en la cual me envían dos avales, uno de Manolo y otro de un amigo de él.

No sé el tiempo que estaré aquí. Si cuando termine me enviarán a un campo o me enviarán a casa. El jefe del campo es un teniente de la Guardia Civil.

Sin más por hoy recibe un fuerte abrazo de tu hijo.

1939ko abuztuaren hasieran, Tomasen aita, Victor, Sariogoko lanpostura (Asturias) bidali zuten, garbiketaren iragazkia pasatu ondoren, José Guillén Ibarren agindupean.

Irun 12 de agosto de 1939.
AÑO DE LA VICTORIA

Querida madre y hermanas: El objeto de esta carta, es para deciros que hace mas de seis dias que os escribi, y hasta la presente no he tenido contestacion.

En dicha carta os decia que habia recibido los avales que me enviasteis, y que de los otros que me deciais en otra vuestra no tengo mas que el de papa, los otros dos se han debido de extraviar de todas las maneras no me hacen falta, ya que desde aquí se encargan de hacer los tramites para mi salida; o sea, pedir informes a la Alcaldia, a la Guardia Civil y las JONS.

Espero que ya estareis completamente tranquilas por mi, pues como os decia en mi anterior estoy en las oficinas del Campo, en las que me encuentro perfectamente, como bien, tengo entera libertad para salir del Campo, y un pasa para circular por Irun, así que que estoy como quiero, unicamente añoro el poder abrazaros, y esto espero que sera pronto, calculo que antes del dia 10 del mes que viene, podre hacerlo (quizá sea antes, pues yo he calculado lo maximo

Supongo que si habeis recibido la carta que os digo ya me habra habreis enviado, pues me es muy necesaria, ya que no tengo mas que que el pantalon que compre y la camisa. Carlitos me envió, estando en Francia, algo de ropa, pero yo me la reservaba, para ponerme en cuanto saliese del Campo con direccion a casa, pero en el tren, me quitaron o perdi, el paquete que habia hecho con una manta. La que traia la tire por que estaba rota y llena de porqueria. ~~Recibí~~

Recibi carta del ti Pio, en la que me decia, que estaban todos bien, y que se necesitaba ropa, le conteste diciendole que no tenia pero que ya os habia escrito pidiendolos. La ti Petra me decia que hacia tiempo te habia escrito diciendote que en viases a unas de las chicas a pasar unos dias con ellas y que no la has contestado.

Si mal no recuerdo me deciais que la abuela y Merceditas estaban con vosotros, las dais muchos abrazos de mi parte., que no he olvidado de ellas y que espero poder abrazarlas pronto.

Si esta Manolo en es a le dais las gracias de mi parte, y de Pilar y los niños ya me fireis algo en la proxima.

A Carlitos ya le escribi diciendole, dandole las gracias.

Del dinero que enviasteis, ya no me queda nada, unicamente me he reservado cinco pesetas para sellos. No os estrañe que tan pronto haya hecho desaparecerlo, ya que la mayor parte lo he gastado en comida, pues venia con hambre atrasada de diez meses.

A papa ya le escribi, y hasata la presente no he tenido contestacion.

Tambien os decia en mi anterior, que fueseis a la calle de Diego de Leon no 27, y preguntar por D. Joaquin Perez Pardo, que es el padre de Juliá, y preguntaseis por el.

Sin mas un fuerte abrazo para el tío Andrés, y vosotras recibir lo que querais de vuestro

José Guillén Ibarra da Tomasek bere gutunean aipatzen duen abala, Sariegoko Guardia Zibilaren postuko komandantea baita. Haren txostenak lortu zuen Tomas esparrutik ateratzea.

Abuztuaren 14an, behin-behineko baimena jasoko du Madrilera joateko.

FICHA NÚM. _____

Comisión Clasificadora de Prisioneros y Presentados
DE
IRÚN-SAN SEBASTIAN

Apellidos *Valentín Ramos*
Nombre *Tomás*
Edad *21* años.
Estado *Soltero*
Naturaleza *Madrid*
Domicilio *Ynfantas 10*
Fecha en que pasó a la zona Nacional *25* de *Julio* 1939
Tiempo que ha permanecido concentrado _____ meses _____ días.
Concepto que ha merecido a esta Comisión *Bueno*
Informe del Comandante de Puesto de la Guardia Civil de Saniego (Oeste)

A la vista de los documentos aportados, esta Comisión acordó clasificarle en el apartado *D. Permiso Provisional* y pasaportarle para *Madrid* donde se presentará a las Autoridades locales (Comandantes del puesto de la Guardia Civil, Comandantes militares y Alcalde), sirviendo este documento como salvoconducto.

Año de la Victoria, Irún *14* de *Agosto* de 1939
El T. C. Presidente.

El Vocal Jurídico, *[Signature]* El Capitán Vocal, *[Signature]*

Boletín de citación de prisioneros de guerra

Distrito de *Centro*
Apellidos y nombre *Valentín Ramos Tomás*
Domicilio *Ynfantas n. 10*
Día para presentación *21 Agosto del 39*
(en letra)
Hora *10/*

Iturria: @HCubiertos 24 abe. 20 "1939ko otsaila. Orogarri bat aitonarentzat..."

MEMORIA LEKUAK

Memoria Demokratikoari buruzko urriaren 19ko 20/2022 Legearen 49. artikulua dioenez, "*Memoria leku bat da garrantzi historiko edo sinbolikoagatik edo memoria kolektiboan izandako oihartzunagatik gertakari esanguratsuak gertatu diren edozein espazio, higiezin, inguru edo kultur ondare inmaterial edo ukiezin, eta memoria demokratikoarekin, espainiar herritarrek beren eskubide eta askatasunen alde egiten duten borrokarrekin eta emakumeen memoriarekin dute lotura, eta baita 1936ko uztaileko estatu kolpearen kontrako erresistentziaren ondorioz herritarren kontra erabilitako errepresio eta indarkeriarekin, Gerrarekin, Diktadurarekin, erbestearekin eta balio demokratikoak errekuperatu eta sakontzeko borrokarrekin ere*".

Legearen arabera, Estatuak leku horiek **birgaitu, zaindu eta kontserbatzeko betebeharra** du geroari begira, batetik "gogoratzeko betebeharrean" sartzen delako eta, bestetik, memoria kolektiboaren ahanzturan gal ez dadin.

Definizioa

Memoria toki ere esaten zaie espazio fisiko horiei, eta gertaera historiko garrantzitsuak, tragediak, gizateriaren kontrako krimenak eta gizartea markatu duten beste esperientzia kolektibo batzuk oroitzeko sortu dira, eta horregatik zaindu behar dira. Leku horien helburua da gertatutakoa oroitzea, biktimak omentzea eta gertatutako gertakariari buruz gogoeta eragitea berriro gerta ez daitezen.

Pierre Nora memoria lekuei buruz itzal handiko lana egin duelako da ezaguna, eta memoria historikoa gizartean nola eraikitzen den eta irudikatzen den aztertzen du, bere iritzian "memoria lekuak" direnak ardatz hartuta. Leku horiek oroitzapenaren eta memoria kolektiboaren toki bihurtu diren sinboloak edo espazio fisikoak dira.

Noraren lanak memoria historikoa gizarte modernoan nola eraldatu den aztertzen du, eta nola gertaera eta sinbolo batzuk hautatu eta zaintzen diren oroiak izateko, eta nola beste batzuk ahanzturan galtzen diren.

Ken Foote geografiaren eta memoria kolektiboaren arteko harremanari buruz ikertu eta idatzi duelako da ezaguna, eta hirietako leku eta espazioak memoria leku nola bihurtzen ditugun aztertzen du, eta, halaber, gizarteak memoria leku horietan nola eraiki, zaindu eta irudikatzen duen.

Haren obraren ardatza da komunitate baten nortasun kulturean eta memoria kolektiboan zer-nolako eragina duten gertaera historikoen, oroitzapenezko monumentuen, leku traumatikoen eta beste leku esanguratsu batzuen. Ildo horretatik, memoria lekuak iraganari zentzua emateko nola erabiltzen ditugun eta historiaren pertzepzioan eta pertsonen nortasunean zer-nolako eragina duten aztertu du.

Hona memoria lekuen adibide batzuk:

1. **Oroitzapenezko monumentuak:** historiako gertaera edo pertsona garrantzitsuak gogoratzeko berariaz eraikitako lekuak.
2. **Hilerriak:** hildakoak lurperatzeko lekuak, joan zaizkigun pertsona maiteak omentzekoak.

3. **Leku historikoak:** historian gertaera erabakigarriak gertatu ziren lekuak, hala nola gudu zelaiak, eraikin historikoak edo aztarnategi arkeologikoak.
4. **Museoak eta memoria zentroak:** gertaera historikoekin edo pertsona aipagarriekin zerikusia duten objektu eta dokumentuak zaintzeko eta erakusteko erakundeak.
5. **Hirietako espazio publikoak:** bertan gertatutakoagatik edo komunitatearentzat duten garrantzi kulturalarengatik esanahi berezia duten plaza, kale, parke eta lekuak.

Ken Footek eta beste akademiko batzuek funtsezko lana egin dute memoriaren geografiaren esparruan, ulertzen laguntzen baitu memoria kolektiboa bizi garen leku eta espazioen bidez nola islatu eta eraikitzen dugun eta leku horiek gizartearen nortasun kulturalaren eraikuntzan zer-nolako eginkizun garrantzitsua betetzen duten.

Izan ere, memoria lekuek ez dute ezartzen kontakizun finko eta iraunkor bat gerora begira; aitzitik, etengabe alda daitezke, eta **fisikoki ere eralda daitezke**, baita deuseztatu ere, hasiera batean **zuten sinbolismo guztia erabat aldatzeraino**. Alde horretatik, **leku jakin batzuetan gertatzen diren hiri-aldaketek memoria eta ohiturak aldatzea ere ekar dezakete, eta, ondorioz, lekuaren eta nortasunaren arteko harremana ere gal daiteke.**

Memoria lekuak babestea funtsezkoa da hainbat arrazoi garrantzitsurengatik:

1. **Historia babesten dute.** Memoria lekuak gertakari historiko garrantzitsuen, tragedien eta lorpen kolektiboen lekuko fisikoak dira. Haien babestuta, ziurtatu egiten dugu geroko belaunaldiak iraganari buruz ikasi ahal izango dutela eta ulertu ere bai gertaera batzuek egungo gizartea nola moldatu duten.
2. **Biktimak oroitu eta omentzeko dira.** Memoria lekuak gertakari tragikoetan edo gatazketan sufritu eta bizia galdu duten pertsonak omentzeko lekuak dira. Leku horiek mantenduta, aukera izango dugu haien istorioak ez ahazteko eta haien bizitzak oroitzeko eta errespetatzeko.
3. **Nortasuna eta kidetasun sena eraikitzen laguntzen dute.** Memoria lekuek harreman estua dute nortasun nazional eta lokalarekin. Komunitateei beren iragana ulertzen eta kidetasun sena garatzen laguntzen diete, eta horrek gizarte kohesioa eta komunitate sena sendotzen lagun dezake.
4. **Gerorako irakaspenak ematen dituzte.** Memoria lekuak iraganeko ekintza eta erabaki batzuen oroigarri garrantzitsuak dira. Ohartarazteko balio dezakete, akats historikoak berriro errepika ez ditzagun eta tolerantzia, bakea eta berdintasuna susta ditzagun.

5. **Hausnarketa eta elkarrizketa sustatzen dute.** Memoria lekuak gai historiko eta sozialei buruz hausnartzeko eta hitz egiteko espazioak dira. Topaguneak izan daitezke, jendeak historiari buruz eta gaur egun dituen ondorioei buruz eztabaidatu eta ikas dezan.
6. **Justizia eta adiskidetzea sustatzen dituzte.** Gatazkak edo giza eskubideen urraketa larriak izan dituzten herrialdeetan, memoria lekuek lagun dezakete justizia bilatzen eta gizarteko taldeak adiskidetzen.
7. **Egia jakiteko eskubidea dugu.** Memoria lekuak mantendu eta babestea egia jakiteko eskubidearen parte bat da, egia jakitea funtsezkoa baita gertaera historikoak argitzeko eta iraganari buruzko kontakizun zehatz eta osoa eskaintzeko.

Memoria lekuak eta heziketa

Memoria lekuek funtsezko zeregina dute heziketan, gertaera historiko esanguratsuak gogoratzen baitituzte, eta gogoeta kritikoa sustatzen eta historia ulertzen ere laguntzen baitute. Hona memoria lekuak eta heziketa elkarrekin lotzeko zenbait modu:

Bizipenak ikasiz. Memoria lekuek aukera ematen diete ikasleei benetako esperientzia hezigarri bat bizitzeko leku historikoak bisitatzeko. Gertaera garrantzitsuak gertatu ziren lekuak ikusi eta esperimintatzeak eragin sakona izan dezake ulermenean eta enpatian.

Historiarekin konektatuz. Memoria lekuek nabarmenago eta zirrara handiagoz lotzen dituzte ikasleak historiarekin. Pentsa dezakete nolakoak ziren baldintzak, nola bizi ziren pertsonak eta nola gertatu ziren gertakariak. Horrela, bizia ematen zaio historiari.

Testigantza eta errelatu bidez. Memoria leku askotan, jasota egoten dira gertaera historikoak bizi izan zituzten pertsonen idatzizko, ahozko eta ikusizko testigantzak. Kontakizun pertsonal horiek historia gizatiartzen dute, eta ikasleei aukera ematen diete esperientzia indibidual eta kolektiboekin konektatzeko.

Errepikatzea prebenituz. Memoria lekuek intolerantziaren, diskriminazioaren eta indarkeriaren arriskuei buruzko irakaspen erabakigarriak eman ditzakete. Historian oinarritutako hezkuntzak iraganeko akatsak berriro gerta ez daitezen lagun dezake.

Enpatia garatuz. Iraganean sufritu zuten pertsonen esperientziei buruz ikastean, ikasleek biktimekiko enpatia garatu eta gertaera historikoen giza eragina hobeto uler dezakete.

Pentsamendu kritikoa garatuz. Memoria lekuek erronka egiten diete ikasleei arazo konplexuak aztertu eta haiei buruz hausnar dezaten, ikuspegi desberdinak kontuan har ditzaten eta pentsamendu kritikoaren trebetasunak gara ditzaten.

Eztabaidak sustatuz. Memoria lekuak abiapuntu izan daitezke, ikasgelan gai historikoei, etikoei eta sozialei buruz eztabaidatzeko.

Ikasgelako irakaskuntzaren osagarri izanez. Memoria lekuak irakaskuntza osatu eta aberats dezakete ikasgelan, ikasitako gaiei dimentsio praktikoa eta ikusizkoa ematen dieten aldetik.

Herritar informatuak prestatuz. Memoria lekuen bidez hezteak herritar informatuak eta konprometituak prestatzen laguntzen du, ulertzen baitute memoria historikoa garrantzitsua dela eta zaindu beharra dagoela.

Azken batean, memoria lekuak eta heziketa konbinatzeak eragin iraunkorra izan dezake ikasleek historia ulertzeko eta balioesteko moduan, eta ikasgai horiek eguneroko bizitzan eta etorkizuneko erabakietan aplikatzeko moduan.

Laburbilduz, memoria lekuak babestea funtsezkoa da historia babesteko, biktimen oroitzapenerako, identitatea eraikitzeko, etorkizuneko hezkuntzarako, hausnarketarako eta elkarrizketarako, justiziarako eta adiskidetzarako. Leku horiek eginkizun erabakigarria dute gizarte baten memoria kolektiboan eta iragana eta oraina ulertzerakoan.

Memoria lekuak munduan

Memoria lekuak, hala nola frankismoaren garaiko errepresioaren historiako lurraldeak, sinboloak eta markak, funtsezkoak dira memoria-prozesua eraikitzeko. **Honetan, estatu espainiarra salbuespen bat da; izan ere, estatu espainiarrak ez bezala, errepresio eta tortura gunek oroimenerako leku bihurtu dituzte herrialde askok.**

Hona hemen munduan zeharreko memoria lekuen adibide aipagarri batzuk:

Holokaustoaren monumentua (Berlin): Holokaustoaren Memoriala ere esaten zaio, eta oroitzapenerako monumentu bat da, Holokaustoaren biktima juduak omentzeko. Hormigoizko 2.711 bloke dira, eremu izurtu batean jarrita, eta Berlinen gehien bisitatzen den tokietako bat da.



Web gunea: www.stiftung-denkmal.de/

Sachsenhausen-go kontzentrazio esparrua (Oranienburg): 1936an eraiki zuten, eta nazien erregimenak erabilitako kontzentrazio esparru handienetako eta zaharrenetako bat izan zen. Gaur egun, museo eta memorial bat da, biktimak oroitzeko eta Holokaustoaren izugarrikerien gainean hezteko.



Sachsenhausen (Oranienburg): Photographs

www.jewishvirtuallibrary.org/sachsenhausen-oranienburg-photographs

Izuaren topografia (Berlin): Zentro dokumental hori Gestapo eta SSen bulego nagusia zeuden tokian dago, eta erregimen naziazen eta haren errepresio-aparatuaren krimenen oroigarri bat da.



Web gunea: www.topographie.de

Hiroshimako Bakearen Memoriala (Hiroshima, Japonia): Monumentu hori Hiroshimako Bakearen Parkean eraikia dago, eta 1945eko abuztuaren 6an Hiroshiman egindako eraso atomikoaren biktimak oroitzen ditu.



Hiroshimako Bakearen Memoriala (Unesco) (<https://whc.unesco.org/es/list/775>)

Tuol Sleng-eko Genozidioaren Museoa (Phnom Penh, Kanbodia): Garai bateko espetxea eta torturazentroa, Jemer Gorrien erregimenean. Orain, museo bat da, eta garai horretan egindako krimenak eta ankerkeriak dokumentatzen ditu.



Tuol Sleng-eko Genozidioaren Museoa <https://tuolsleng.gov.kh/en/>

Latinoamerikan, bereziki Argentinan eta Txilen, memoria, egia eta justizia eraikitzeko prozesu garrantzitsuak garatu ziren.

Memoria zentroak Argentinan

Buenos Aireseko Armadako Mekanika Eskola (ESMA). 1976 eta 1983 bitartean, 5.000 pertsona bahitu eta torturatu zituzten bertan.



Buenos Aireseko Armadako Mekanika Eskola

www.museositiesma.gob.ar/el-museo/la-ex-esma/

Memoriaren Parkea (Buenos Aires): Río de la Plataren ertzean dago, eta oroitzapenerako monumentu bat da, Argentinako diktaduraren biktimak omentzeko. Milaka plaka ditu desagertuen izenekin.



Memoriaren Parkea

<https://verdadyjusticia.org.ar/programa-para-el-desarrollo-de-jovenes-en-ddhh/mi-visita-al-parque-de-la-memoria/>

Memoriaren Museoa (Rosario): Rosarioko hirian dago museo hori, eta Argentinako diktadura militarren historia oinarritzen eta dokumentatzen du, giza eskubideen aldeko erresistentzia eta borroka ardatz hartuta.



Memoriaren Museoa (Rosario) www.museodelamemoria.gob.ar/

Espazio horretaz gain, gaur egun, 200 errepresio leku baino gehiago daude Argentinako hainbat herritan seinaleztatuta, eta Argentinako Kulturako Ministerioak dioenez, "***espazio publikoak dira, irekiak, eta sarrera libre eta doan da. Espazio horien konpromisoa da oraintsuko iraganaren berri ematea, eta estatuaren indarkeria eta indarkeria horrek historiako hainbat garaitan zapuztu nahi izan zituen borroka sozialak ikertzea eta horiei buruz hausnartzea.***"

Memoria zentroak Txilen

Víctor Jara estadioa, aurretik Txile Estatu izenez ezaguna, atxilotze eta tortura zentro gisa erabili zuten, eta hara eraman zuten kantautorea, Estatuko Unibertsitate Teknikoan atxilotu zutenean ezkerreko beste militante batzuekin batera.



Víctor Jara estadioa (<https://estadiovictorjara.cl/>)


Memoriaren eta Giza Eskubideen Museoa (Santiago): 2010ean inauguratu zen, eta Augusto Pinocheten diktadura garaian (1973-1990) giza eskubideak urratu zirela oroitarazten du.



Memoriaren eta Giza Eskubideen Museoa

<https://www.santiagoregion.com/es/ver/4/495/museo-de-la-memoria-y-los-derechos-humanos>

Isla Dawson (Magallanes): Txileko hegoaldeko muturrean dago, eta diktadura garaian preso politikoak erbestertzeko eta atxilotzeko erabili zuten.



Isla Dawson

www.ovejeronoticias.cl/2017/09/campo-de-concentracion-de-isla-dawson-en-magallanes-fue-declarado-monumento-historico/

Bakearen Aldeko Parkea eta Villa Grimaldi Museoa (Santiago): Txileko Santiagon dago, tortura eta atxiloketa zentroa izan zena hausnarketa eta jarduera gunek bihurtzen da, iraganetik ikasten saiatzeko. Parkeaz gain, Villa Grimaldi Museoak zabaltu eta sakondu egin du Bakearen Aldeko Parkean egindako memoria lana.



Bakearen Aldeko Parkea eta Villa Grimaldi Museoa

<https://villagrimaldi.cl/parque-por-la-paz/>

Beste memoria-zentro batzuk Latinoamerikan

Montevideoko muinetik desagertutako atxilotuen monumentua, Vaz Ferreira parkea, Montevideo, 2001ean inauguratua.



Argazkia: Marisa Silvaren eskaintza

Bogotako Paz y Reconciliación memoria-zentroa: Memoriatik, egia historikotik eta demokratik abiatuta bakearen, adiskidetzearen eta giza eskubideekiko errespetuaren kultura sustatzeko tresna bat da.



Web gunea: <http://centromemoria.gov.co/informacion-general/>

Horiek memoria lekuen adibide batzuk besterik ez dira, herrialde bakoitzaren historiako gertaera traumatiko eta nabarmenak oroitzeko gauzatu direnak. Leku horiek garrantzi handia dute memoria kolektiboa babesteko eta etorkizunean gertaera ilunak errepika ez daitezen prebenitzeko.

Diktadurak jasan dituzten beste leku batzuetako memoria prozesuetatik ikastea ezinbestekoa da, justiziaren, memoriaren eta egiaren bideari ekiteko. Horretarako, funtsezkoa da gure historia eraikitzen laguntzen jarraitzea, guztion ardura baita zeregin hori.

Ana Guglielmucci-k (Buenos Airesko Unibertsitatea - CONICET) eta Loreto Lópezek (Txileko Unibertsitatea) [Restituir lo político: Los lugares de memoria en Argentina, Chile y Colombia](#), ***“memorializazioa garatzeko moduetako bat memoria lekuak eraikitzea da, betiere iraganeko gertaera eta esperientzien inguruan oroitzapenerako seinale publikoak ezartzeko ahalegin kolektibo gisa ulertuta, gertaera eta esperientzia horiek talde edo komunitate espezifiko batzuentzat esanguratsuak diren aldetik. Eta, ariketa publikoa den heinean, ekintza politiko bat da, non elkarrizketak eta tentsioak ikusten baitira gogoratzen diren gertaerak ulertzerakoan”***. Hala, Berlingo Unibertsitate Libreko Latinoamerikako Institutuan irakasle den Estela Schindel-ek dioen bezala, prozesu horretan, ***“memoriak gauzatu eta irudikatzeaz gain, horiekin lotura duten gatatzak”*** ere agertzen dira.

PEQUEÑA VELOCIDAD “MEMORIAREN LEKUA”

Toki hori memoria-leku izendatzeko arrazoiak

Lehenik eta behin, Irungo eta Gipuzkoako kontzentrazio-esparruen multzotik **zutik jarraitzen duen zentro bakarra** da. Horregatik da garrantzitsua hura kontserbatzea.

Beste leku batzuk kontzentrazio-esparru gisa erabili ziren, eta, gero, berreskuratu egin zuten hasiera batean zuten erabilgarritasuna, eta, gaur egun, beste helburu baterako erabiltzen dira edo desagertu egin dira, baina *Pequeña Velocidad*-en eraikinak Irun gerran eta ondorengo diktaduran zer izan zen erakusten du neurri batean.

Esparru hori **1936tik 1942ra bitartean izan zen kontzentrazio-esparrua**. Bien bitartean, Espainiako beste eremu batzuk 1939an itxi zirenean, orduan izan zuen jardunik handiena; izan ere, gerra amaitu ondoren, mugako hiria Pirinioen mendebaldeko sarrera bakarra bihurtu zen, eta jende asko sartu zen Kataluniatik etorrira, eta 1942 arte egon zen irekita.

Dituen ezaugarriengatik, ukaezina da memoria-leku bat dela. Mugatik hurbil eta trenbidean integratuta dago. **Irungo hirian ezer ba al dago muga- eta trenbide-izaera baino sustraituagoa dagoenik!** Presoak trenean eramaten zituzten hara, eta barruti horretan pilotzen ziren, beste kontzentrazio-esparru batzuetara, presondegietara edo, zorte gehiago bazuten, askatasunera eramango zituzten trenaren zain.

Irunek ibilbide bat zuen Etorbidearen zubitik atxilotze-esparruetaraino, handik zeharkatzen baitzuten muga. Stadium Gal, Hilaturas, Behobia, Elgorriaga txokolate-fabrika, kartzela.

Ditugun lekukotasunen arabera, *Pequeña Velocidad* esparruko egonaldia laburra zen, askatasuna lortzeko abalaren zain. Inoiz ez ziren hain garrantzitsuak izan lagunak, ezagunak, eta inoiz ez zuen hainbesteko pisurik izan iraganak, etsaiek, bekaizkeriek, patuaren zain zeuden garaian baino.

Tramite horiek atxilotuen destinoa zehazten zuten. Haietako asko beste kontzentrazio-esparru batzuetara eraman zituzten: La Magdalena (Santander), San Pedro de Cardeña (Burgos) edo Miranda de Ebro (Burgos). Hortik abiatu ziren, halaber, langile-batailoietan parte hartuko zutenak, Francoren zerbitzura esklabo izango zirenak.

Pequeña Velocidad kontzentrazio-esparruan, **oraindik ere, bertatik igaro zirenen testigantzak daude hormetan**. Jose Maria Etxaburu "*Kamiñazpi*"k gau luzea deskribatzen digu, etzateko lekurik gabe pilotzen ziren lekuan igaro beharrekoa. Tomás Valentinek ziurgabetasunaren larritasuna, beldurra, bakardadea uzten dizkigu bere gutunetan.

Kontserbatu diren esparruaren argazkiek haien biziraupenera lotzen gaituzte. Haiak ikusi zituzten pareta berberak; jasan zituzten umiliatzeak; egin zituzten urratsak; dena galdu, besoa goratuta agurtu eta elizaren aurrean indarrez belaunikatu behar izan zuten haien begiradak. Gure ondare historikoa da irudietako sakrifizio biziko aldare hori, eta inork ere ez du hura eraisteko eskubiderik.

Memoria Demokratikoaren urriaren 19ko 20/2022 Legeak, memoria-lekuak deklaratzeko babesten duenez, erakusten digu *Pequeña Velocidad* pabiloia halakotzat hartu behar dela eta hori errespetatuz egin behar direla hirigintza-garapenak.

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

IRUNGO UDALA

Irungo batailaren eta okupazioaren 87. Urteurrena

(2023ko irailaren 3a)

Asteburu honetan 87. urteurrena beteko da Emilio Molak eta, azken batean, Francisco Francok zuzendutako tropa kolpistek Irun okupatu zutela bataila baten ondoren. Euskadi osoak eta Espainia osoak bezala, Bigarren Errepublikaren kontra 1936an egindako kolpe militarra sufritu zuen Irunek. Errepublikak gauzatu zuen Euskadiren lehenengo Autonomia Estatutua, 1936ko urriaren 1ean Gorteek onetsita. Horren ondorioz eratu zen lehenengo Eusko Jaurlaritzza, Gernikan, 1936ko urriaren 7an.

Hainbat hamarkada igaro dira, eta oraindik ere ez daude aitortuta 1936ko udatik diktadura frankistaren amaiera arte Irungo herrian izan ziren giza eskubideen urraketen biktima guztiak.

Endarlatza, Pagogaña edo Erlaitzen 1936ko lehen borrokaldietatik Behobian, Azken Portun eta hirigunean eraikitako barriketaraino, Irun izan zen Gipuzkoako lehen erresistentzia-gune nagusia, eta hilabete eta erdian egin zien aurre kolpistei. Gaur, 87 urte geroago, omenaldia egingo diegu demokrazia eta Bigarren Errepublikaren legezkotasuna kolpisten aurrean arma bidez defendatu zuten guztiei. Zelaietan eta kaleetan, eta muinoetan borrokatu ziren, eta inoiz ez ziren errenditu.

Tokiko Defentsa Batzordea osatzen zuten talde politikoek –gehienbat ezkertiarak ziren– aktiboki parte hartu zuten hiriaren aldeko borrokan eta defentsan, baina ez ziren bakarrak izan. Izan ere, Gipuzkoako Gerrako Komandantziari atxikitako miliziak, dinamitero asturiarrak eta/edo Bartzelonatik etorritako anarkistak ere Irungo batailaren protagonista izan ziren. Aipamen berezia merezi dute, halaber, Bigarren Errepublika, haren legezkotasuna eta Irun hiria defendatzera munduko hainbat lekutatik etorri ziren internazionalistek: elkartasun handia erakutsi zuten eta baita garaiko ideia politikoekiko konpromiso zorrotz bat ere.

Era berean, aintzatespen heroikoa merezi dute Irun tropa erreboltariatik babesten aktiboki lagundu zuten emakumeek. Bizia jokoan jarri zuten, batzuek lehen lerroan, beste batzuek erretagoardian hainbat lan eginez. Historiak ahaztuta zeuzkan emakumeak dira, isiltasunera kondenatuak, nahiz eta gerraostean eta diktaduran gizonak bezain erreprimituak, edo erreprimituagoak, izan.

Ezin ditugu ahaztu, ezta ere, kolpista-horden izua eta beldurra jasan eta zorigaitzeko egun haietan erbesterratu behar izan zuten guztiak. Beren bizimoduak atzean utzi behar izan zituzten, eta jaso ahal izan zituzten ondasun urriekin beste bizimodu berri bati ekin, gerra hurbil zegoelako. Bilbo, Bartzelona, Iparralde eta Frantziako hego-mendebaldea izan ziren Irungo errefuxiatu gehienen abegitokiak. Familia batzuk aste gutxitara itzuli ahal izan ziren. Beste batzuk, aldiz, hainbat urtetan ezin izan ziren itzuli beren jaioterrira. Eta, tamalez, batzuek ez zuten berriro zapaltzerik izan Irungo hiria.

Memoria kolektiboa eraiki behar dugu, iragana ahaztu gabe etorkizunean bakean eta bizikidetzan oinarrituta bizi gaitezen. Ildo horretan, memoria elkarteek, bereziki Nicolas Guerendiainek eta Kepa Ordokik, eta beste erakunde batzuek urte hauetan guztietan egiten duten lana aitortzen dugu. Era berean, Udalak Hiriaren memoria historikoa berreskuratzeko eta zaintzeko egindako lana nabarmendu nahi dugu, Memoria Historikoaren Bulegoa sortzea baita haren mugarri garrantzitsuena.

Horregatik guztiagatik, Irungo Udalak konpromiso hau hartu du:

1936 eta 1945 urteen artean Irunen izandako errepresio militarri buruzko ikerketa-lanarekin jarraitzea.

Errepresio militar honen biktimak aitortzeko lanean jarraitzea.

Irunen aldi horretan gertatutakoaren gardentasuna bermatzeko beharrezko mekanismoak ezartzea, ikerketetan lortutako informazioa eta udal artxiboan jasotakoa eskuratuz eta jendaurrean zabalduz.

Gure ondare historikoa kontserbatzea, memoria-tokiak zainduz.

Irungo Udaletik, 1936-39ko gerra modu batera edo bestera jasan zuten biktima irundar guztiak gogoratu, aitortu eta omendu behar ditugu

Albisterako eta adierazpenerako esteka

ONDORIOAK

Txosten honen eduki osoa laburbilduz, ondorio batzuk atera ditzakegu:

- Eraikin hori gure hirian oso garrantzitsuak izan diren gertakari historikoak gertatu diren leku bat da. Kontzentrazio-esparru bakarra da Gipuzkoan.
- Pabiloi horretan egon zirenek **ez zuten soilik errepresio frankista jasan**. Negar ere egin zuten, eta barre, eta lo, eta jan. **Hango paretan artean, esperimentatu eta imajinatu daitezke zer egoeratan zeuden, nola bizi ziren eta gertaerak nola gertatu ziren, eta horrek bizia ematen dio historiari.**
- Zutik mantentzeak gure hiriarentzat esan nahi du leku bat izango dela omentzeko, oroitzeko, gure iragana ulertzeko, etorkizuneko belaunaldiak hezteko.
- Bertan, ikastetxeetan egiten diren irakaskuntzak osa daitezke, aberastuz eta ikasitako gaiak in situ ikusaraziz.
- Gure hiriarentzako bisita-leku bat izan daiteke, munduko beste hiri batzuetan bezala, izan ere, bertan, orain arte oso gutxi ezagutzen den gure hiriaren historiaren zati garrantzitsu bat ikasi ahal izango da.
- **Praktikan jartzea** 2023ko irailaren 3an *“Irungo Udalak egindako Adierazpen Instituzionala. Irungo guduaren eta okupazioaren 87. urteurrena”*. Hauxe dio adierazpen horretako konpromisoetako batek: **Gure ondare historikoa kontserbatzea, memoria-lekuak babestuz.**

“Nicolás Guerendiain” Irungo Elkarte Errepublikanoak dei egiten du Irungo Udalak hausnar dezan nola egokitu aurreikusitako *Vía Irun-go* pasabidea, *Pequeña Velocidad* pabiloia bota beharrik gabe. Zenbait ideia bururatzen zaizkigu, hala nola eraikinaren sabaia beherago egokitzea, haren paretaren bat diseinu orokorrera egokitzea...

Leku egokia da Memoriaren Museoa sortzeko. Haren pareta artean mugitu eta haietan gure historia sentitzeko. Gure iragana eta gure oraina ezagutzeko, eta, aldi berean, ikasteko eta hezteko, gertaera horiek berriro gerta ez daitezen.



ARGAZKIAK

















BIBLIOGRAFIA

- Los campos de concentración de Franco. [Sitio web](#)
- [Los campos de concentración de Franco](#). (2021) Carlos Hernández de Miguel
- Ascensión Badiola Ariztimuño. Tesis doctoral "[La represión franquista en el País Vasco. Cárceles, campos de concentración y batallones de trabajadores en el comienzo de la posguerra](#)" Facultad de Geografía e Historia de la UNED año 2015.
- Los lugares de memoria en España una perspectiva espacial de análisis del conflicto de memorias. ([Tesis doctoral de Sergio Claudio González García](#))
- Los lugares de memoria como símbolos de nuestra historia ([El Salto](#))
- Les lieux de mémoire ([Pierre Nora](#))
- Lugares de memoria: entre la tensión, la participación y la reflexión ([Yaneth Mora Hernández](#))
- Lugares de memoria: objetos de estudio y reflexión del patrimonio cultural ([Evelyn Patiño Zuluaga y Ana Cristina Herrera Valencia](#))
- [El mapa de los lugares de memoria democrática en España](#)
- [Lugares de la memoria en España](#)
- Lugares de memoria y marcación territorial: sobre la recuperación de los centros clandestinos de detención en argentina y los lugares de memoria en España ([Silvina M. Fabri](#))
- Lugares de memoria y sitios de conciencia: construyendo patrimonio y memoria para la acción en derechos humanos ([Ximena Faúndez Abarca, Daniel Rebolledo Hernández, Christian Sánchez Ponce y Omar Saqredo Mazuela](#))
- Los Espacios Memoriales y el Mapa de la Memoria. Soportes Educativos para discutir la historia reciente ([Mónica Cristina Fernández / Patricia Beatriz Acuña](#))
- Sitios de memoria. El recuerdo que permite olvidar ([Paola Méndez](#))